# ttipi-ttapa

1992.eko Uztailak 2 | 89. zenbakia | dohain banatzen da



# CONSERVAS MARTIKO, S.A.

**Ahatetan espezializatuak**



**Ahate-foi**

**Gibel-gizena**

**Urdai azpikoa**

**Ahate-hegalak**

**Ahate-izterrak**

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

ZURE MAHAIARAKO AHATERIK HOBERENA



TELLETXEA

**San Ferminetan Elkartasunezko jai giroan!**

**Euskadiko Kutxa**

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA

# ATARIA

non - zer


4 **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 **HONTAZ ETA HARTAZ**

8 **IRAKURLEAK MINTZO**

9/37 **HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

Lesakako bestetako koadernilloa

38 **ERREPORTAIA:** "Nora joaten da jendea oporretan? Bidai agentzietako datuekin osatua"

Aitor Arozena

40 **KIROLAK:** "Amaiurrek berreskuratu zuen aurtengoan Nafarroako sokatira txapelketa 640 kilotan" .

42 **MERKATU TTIKIA**



*ttipi-ttapa*

HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Tirada: 5.200 ale**

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** ***ttipi-ttapa*** . **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....
**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)
***ttipi-ttapa*** aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

## Beharrezko telefonoak

**SOS Nafarroa /Urgentziak**...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo....................452367 / 580235
Doneztebe ..............................450300
Lesaka.........................637428 / 637336
Leitza ........................510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun ..................................453039
Gartzain ..................................580451
Oronotz-Mugaire ......................592024
Ituren .......................................450183
Sunbilla ..................................450283
Goizueta ..................................514067
Igantzi .....................................637755
Arantza ....................................634131
Bera........................... 630929 / 630036
Etxalar.......................................635105
Urdazubi....................................599130

**ANBULATORIOAK**

Irun ............................630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea .......................614600
Nafarroako ospitalea ..............102100
SSko urgentzi zerbitzua..........246750
Virgen del Camino
erresidentzia ........... ..............109400
Gurutze Gorria.........................226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz ............................450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak)..........(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak)..............171717

**FUNERARIA**

Lesaka......................................637404
Elizondo ..................................580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire ......................592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra ..............................630279
Baztanesa .................................580129
Leitzaran ..................................515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo ..................................580730
Lesaka......................................637154
Bera ........................................630261

**ABERIAK:**

Iberduero ...................450335/450336

### Botikak

**Uztailaren 4-5ean**, Bera, Narbarte eta F. Iturralde (Elizondo).

**Uztailaren 11-12an**, Arantza, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

### Bertsoak

**LESAKA**

Uztailaren 10ean, gaueko 11,30etan, frontoian. **Bertsolariak:** X. Lizaso, Jon Lopategi, Andoni Egaña, Peñagarikano, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira. **Antolatzaile:** Arrano elkartea.

### Deialdiak

**LESAKA,** Uztailaren 3an, Euskara Batzordearen bilera.

**IGANTZI,** Uztailaren 3an, Euskara Batzordearen bilera.

**ARANTZA,** Uztailaren 9an, Euskara Batzordearen bilera.

**BERA,** Uztailaren 14ean, Euskara Batzordearen bilera.

**ETXALAR,** Uztailaren 15ean, Euskara Batzordearen bilera.

### Bestak

**AZPILKUETA**

**Uztailaren** 5etik 8ra.

Uztailaren 7an, Arizkungo Elkartasuna Dantza Taldearen dantza saioa.

**LESAKA**

**Uztailaren** 4tik - 10era. Ikus xehetasunak erdikaldeko koadernilloan.

### Erakusketa

**ELIZONDO**

Uztailaren 3a bitarte, Gloria Ferreren pintura erakusketa, Arizkunenean.

### Bota bertsoa



**Iñigo OLAETXEA**

(Bortzirietako Bertso Eskola)

**Gaia:** Tour-a Euskal Herritik

**Doinua:** Peñaren doinu berria

Aurtengo hontan honara datoz
beren indar eta guzi
talde onenek daukaten dena
nahi dute hemen erakutsi
goren mailako guztiak daude
eta hori ez da gutxi.
Indurain, Bugno, Chiapucci (BIS)
aurtengoan nor nagusi
Euskadin behintzan gertatzen dena
baietz guztiak ikusi.
Aukera behin bakarrik dago ta
pasatzen ezin da utzi. (BIS)

Ezaguna da euskaldun denen
txirrindula egarria
ofizialki bira onena
honaraino ekarria
batzun ametsa bete da eta
haientzat aipagarria
nahiz eta batzun irria
ez da ixtori berria (BIS)
Euskal Herrira datorrela ere
ez da inungo berria
edo akaso Biarritz ez da
zuentzat Euskal Herria.(BIS)

# AGENDA

## Kirolak

TXIRRINDULARITZA

**LESAKA**

Uztailaren 5ean, Oinarrizko txirrindulari eskoletako haurren laisterketa goizeko 11etan.
Antolatzaile: Beti Gazte

**LESAKA**

Uztailaren 6ean, kadete mailako laisterketa, arratsaldeko 3,30etan. Marino Lejarreta saria.
Antolatzaile: Beti Gazte

**LESAKA**

Uztailaren 10ean, afizionatu mailako laisterketa (Txapeldun trofeoa). Txakain saria.
Antolatzaile: Basurde

**ELIZONDO**

Uztailaren 12an, jubenilen mailako laisterketa.
Antolatzaile: Baztandarra

## Gastronomia

### LEGATZA PUREAREKIN

**Osagaiak:**
(Lau lagunendako)

Legatz isats bat, 1 kg. bat baino gehiagokoa, gurina, gatza, olioa eta ura.



Alicia Ponbar-ek emana
ALKARTETXE Jatetxea - LESAKA

Legatz isatsa ongi garbitu, ezkama guziak kenduz eta gatza eman. Segidan labeontzi batetan jarri, gurinaz igurtzia eta labean sartu.

Erdi egina dagoenean, aurretik patata, gatza, ura eta gurinarekin egina dugun patata purearekin estali eta berriro ere labean sartu, erretzetik akabatzeko.

## Baserriko feria

**ZERRIKIA**

•**Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.700 pzta. **Zerri gizena** (95-100):190 pzta/kilo **Zerramak**: 95-115 pzta./kilo bizirik.

**BEHIKIA**

•**Aretze gizenak**:

**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal
Extra....................510
1.koa....................480
2.koa....................450

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal
Extra....................520
1.koa....................480
2.koa....................450

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 360 Pzta /Kg. Kanal.

•**Aretze ttikiak**
(15 egun inguru):
**Nabarrak:** urruxak 12.000 eta idixkoak 20.000 Pzta.
**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 32.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

MALDAERREKA S.A.
«La Suiza»
Aseguro mota guziak
Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA
PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK
Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!
BERA DESINFECCIONES
Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA

Diversey
Europako lehena ostalaritzarako garbiketa produktuetan
Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA

## 11 galdera llabur



**Mkel Mikelajauregi**
Lesakako peskateroa

**Atuna ala legatza?** Legatza
**Arraia ala haragia?** Haragia.
**Klienteen artean, gizonak ala emakumeak?** Gizonak.
**Arraindegia ala motoak?** Motoak.
**Mendi motoak ala karreterakoak?** Mendikoak.
**Motokrossa ala mendi bizikleta?** Mendi bizikleta.
**Zein bullosoagoa, ehiztaria ala motokrosseroa?** Motokrosseroa.
**Besta egin ala telebista ikusi?** Besta egin.
**Sanferminak eta iñauteriak?** Iñauteriak.
**Peña eguna ala San Fermin eguna?** Peña eguna
**Ura ala zerbeza?** Zerbeza

## Musika

**Hortzak estuturik**
Su ta Gar
Euskadi - 1992




Euskalerri osoan, heavya euskaraz ongi landu duen talde bakarrak kaleratu berria du bere bigarren iraupen luzeko diska, lehenengo "Jaiotze basatia" hari jarraipena emanez. "*Euskalerriko heavyrik mimatuenak gera*" adierazi du berriki Aitor Gorosabel, abeslariak. Euskaraz ari diren bakarrak izateak izanen du horretan zerrikusirik, noski. Duela urte batzuk asko aditu zen, beraien "Haika mutil", Mikel Laboaren kantaren bertsioa, eta geroztik beraien estiloa finkatu dute garbi: Heavy euskalduna; jende aunitzek ezinezkotzat jotzen zuena.

Azken diska honetan garbiagoa ikusten da estilo hau, doinu gogorragoak eta heavy «klasikoen» ohizko gaiak (espirituak...) "Arbasoen mendekua" bezalako kantetan. Beraien herriko hizkerari –Eibarkoak dira Su ta gar– ere tartetxo bat uzten diote "Eguen bat" abestian. Adituen ustez, diska honek aintzinekoak baino soinu landuagoa du eta ez dira "Ekaitza eta barealdia" bezalako instrumentalak ere falta.

AITOR

ZIZKA OSTATUA
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK
AMETS LIBURUAK
☎ 63 12 67 - BERA


EUSKALDUNA
JATETXEA
Tfnoa.: 63 03 92
BERA



**San Juan gaua,** aurtengoan, urez pasatua ospatu behar izan genuen. Teorian urteko egunik luzeenak, ez zuen ez, udako egunen itxura haundirik izan egin zuen euri eta hotza ikusita.




**Malerrekako** Euskara Zerbitzuko teknikariaren lanpostua betetzeko proba egin berria da. Proba hau egiteko zazpik izena eman bazuten ere, azterketara lau baino ez ziren agertu, eta horietatik *Esther Mugerza Imaz,* Hernaniarra, izan zen puntuaziorik altuena atera zuena. Uztailaren 1ean lanean hasia da jada. Zorte on!

# Ireki atea!

Euskara eta ***ttipi-ttapa***ri buruz, guzion mesederako izanen diren bi ikerketa egiten ari baitira etxez-etxe



Eginen den estudioaren bitartez, informazio lokalaren munduan eta bertze komunikabideekin konparatuz, **ttipi-ttapa**ren eskeintza nolakoa den eta berregokitzekotan nola egin aztertuko da.

Nafarroako Gobernuak osotara subentzionaturik, bi ikerketa burutuko dira uztailaren 15a bitarte Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako herrietan. Bata, herri guziotako *Euskararen Egoerari Buruzko Ikerketa Soziolinguistikoa* eta bertzea, ***ttipi-ttapa***ri buruzko *Merkatu Ikerketa eta Marketing Plana.* Lan hau bi enpresen artean burutuko da: Soziologi Lantegia eta Area 2.000 enpresen artean, alegia.

## 1.645 etxetan 130 galderatako inkesta

Herri guzien artean 1.645 etxetatik pasatuko dira, guzitara 130 galdera dituen inkesta erantzutea eskatuz. Enkuesta betetzen, ordu erdi inguru pasatzen da, eta bertatik atera diren emaitzak guztiz baliagarriak izanen dira.

**INFORMAZIOA:**

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

**ARTEKARI S.L.**

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

**KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ**

**LESAKA:**

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.

**Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

**IRUÑEA:**

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40

**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



MOLINERO PINTURAK




Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

*25 kg. pintura erosteagatik kamiseta bat oparitzat*

Eztegara 19 - 63 02 40 ☎ - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA




• Diskoak,
• Metodoak,
• Musika-Tresnak,
• HI-FI soinua,
• Soinu Profesionala,
• Ekipoen Alokairua...

Nafarroako Gobernuak, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bi ikerketa burutuko ditu aldiberean ekainaren bigarren hamabostaldian Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako herrietan. Alde batetik, ***Euskararen Egoerari Buruzko Ikerketa Soziolinguistikoa*** eta bestetik, ***Ttipi-Ttapa Zonaldeko Informazio Aldizkaria***ri buruzko merkatu ikerketa eta marketing plana.

Aipatu ikerketa, *Area-2.000* eta *Soziologi Lantegia* enpresek burutuko dute; lehenak proiektuaren koordinazio globala eta marketing planari dagokionez eta bigarrenak, soziologi azterketa lanari dagokionez.

Ekainaren 15etik uztailaren 5a bitarte, inkestatzaileak etxez-etxe ibiliko dira, behar bezala kreditatuak, ikerketaren galdetegia osatzeko.

Horrela bada, ikerketa hauek modu egokian burutu ahal izateko, guzion laguntza eskertzekoa da.

........................................................................................................

BERA

# San Estebanetan estrenatuko da Berako Musika Banda

Gerra Zibila aintzinetik, Banda bat ez ezik bi ere izan bazeuden herrian

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Berako bestetan, abuztuaren 3an eta aurreskuaren ondotik, zehazkiago erraiteko, estrenatuko da lehendabizikoz Berako Musika Banda. Gogoratu behar da, gerra zibila bitarte banda bakarra ez ezik bi ere bazirela Beran.

Aldi honetan ia hogei musikarirekin hasiko du bere ibilaldi berria, gazteak gehienak eta batzuk Musika Eskolako ikasleak dira.

Musikariek kontatu zigutenez, zuzendari funtzioa beteko duenik ez dute oraindik aurkitu, eta momentuz, zuzendaririk gabe ari dira entsaiatzen.

Errepertorioari dagokionez, euskal musika doinuetan oinarrituko da printzipalki.

Beraz, martxan dago berriro ere, tradizio luzea izan duen Musika Banda.



KARMELE

*Musika Bandakoak Jo ta fuego ari dira errepertorioa prestatzen*

## Liburutegirako lanpostu deialdian euskara kontutan hartzea eskatu du Udalak

Berako Liburutegirako Nafarroako Gobernuak egin zuen lanpostu deialdian euskara jakitea kontutan hartzen ez zela eta, Udalbatzak errekurtsoa sartzea erabaki zuen.

Izan ere, joan den abenduaren 18 argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean zenbait herritan lanpostu hau betetzeko deialdia, eta deialdi horretan, ez zen euskararen ezagupena kontutan hartzen.

Errekurtsoan bi aukera planteatzen dizkio Berako Udalak Gobernuari: Euskara kontutan hartuko duen deialdi berria argitaratzea edo bertzenaz, aintzineko deialdia moldatzea.

### ttipi-flash

❐ **Bortzirietarako** Eskola Publikoek pasatutako eskaria onartu egin zuen Udalbatzak. Bertzeak bertze, Irakaskuntzaren Erreforma dela eta Eskola Publikoek eskatzen dutena zera da: Bortzirietako Udalek indar egin dezatela Nafarroako Gobernuaren aintzinean, Arantzan 14 urte arteko ikasketak bertan burutzeko, Bera eta Lesakan 16 urte artekoak eta Igantzi eta Etxalarren 12 urte artekoak.

❐ **Eztegara** pilotalekuko ostatuaren errentamendua eta mantentze zerbitzua eta bertzaldetik Lurperatze eta kanposantuko mantentze zerbitzuaren subastarako eskeintzak egiteko epea, uztailaren 10ean bukatzen da. Informazio gehiago nahi duenak, jo beza Herriko Etxera.


GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

ETXEGARAI
BIDEO KLUBA
Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta banakakoak
Konponketa tailerra
Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630529 - BERA

## LESAKA

# Elizarako joan etorrian «Napoleones» martxa jotzea eskatzen dute herriko dantzariek

AITOR AROZENA

Iaz sortutako arazoa oraindik konpondu gabe dago: San Fermin egunean elizarako joan etorrian musika bandak ohizko «Napoleones» izeneko martxa jotzea eskatzen dute dantzariek eta musika bandaren zuzendariak ordea, berak berriki konposatu duen «A orillas del río Onin» pieza jotzea nahi du.

Joan den urtean, ahozko akordio batera iritsi zen zuzendariarekin, joaterakoan Napoleones eta bueltan «A orillas...» joz eta aurten gauza bera egitea proposatu zuten PNVko zinegotziek. HBren ustez, Udalak bitartekari lana egin beharko luke, zuzendaria eta dantzariak bilera batetara konbokatuz eta EArentzat, martxa bat ezarri behar da, urte batetik bertzera zuzendaria edo martxa alda daitekelako.


TELLETXEA

*«Napoleones» martxaren alde agertu dira dantzariak*

## Andra Mari asiloa berehala itxi beharko litzateke estudio baten arabera

Andra Mari asiloa "ruina" egoeran dago, bertan bizi direnentzat arrisku haundia sortuz. Honela dio Nafarroako gobernuaren enkarguz, Batzorde teknikoak egin duen estudioak, berehala itxi beharko zela gaineratuz. Estudioak agertzen duenez, estrukturetan arazoak ditu, pilareak eta soliboak nahiko ondatuak daude, pipiak janak. Patronatoak, bertan bizi direnak, denbora batez, bertze etxebizitzaren batean kokatu behar dituela ere aipatzen du estudioak. Gai honekin jarraituz, azken plenoak ez zuen asiloko langileak aurkeztutako idatzia onartu.

### ttipi-flash

❒ **DYAk** antolatzen zuen II Mountain Bike ibilaldia egin zen ekainaren 28an. Txirrindulariek 27 kilometro inguruko ibilbidea burutu behar izan zuten, Lesakan hasi eta bukatuz eta Otsango, Nabaz, Agiña, Ikatzulo, Isastrin barrena pasatuz.

❒ **Pottoka** kantari amaiurtarrak kontzertua eskeini zuen ekainaren 25ean Matxinbeltzenean.

❒ **ETBko** «Herriko Plazan» saioan parte hartzeagatik 25.000 pztako dirulaguntza eman du Udalak. Saio honen finalera ere iritsi dira lesakarrak.

❒ **219.220** pezeta kostako da bestetako erraldoiak edo giganteak moldatzea. Ilea gaizki dutela eta, kartoia ere paratuko zaie ordezko gisara, aurrekontua pixko bat igoz.

SAN FERMIN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Berriki arte Bortzerrietako baserrietan barrena edariak banatzen ibili naiz, bainan orain ezin dut negozioa atenditzen segitu. Horregatik, banatze lanetan erabilitako **NISSAN Furgoia, NA-AC** matrikuladuna, saldu nahi nuke. Nahi izanez gero, klienteen berri ere emanen nuke.
**Interesatuak deitu: 73 79 83 edo 63 72 97 tfnora.**


* KIXKUR *
ILEAPAINDEGIA
Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

KAMINERO
OSTATUA
Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - **LESAKA**

ARRANO

OSTATUA
Legarrea – **LESAKA**

ETXALAR

# Ekainaren 14ean haurrak izan ziren nagusi

PELLO APEZETXEA

Plazan ikusi ahal izan genuen marrazki eta gainerako eskulan multzo polita haurrek egindakoa zen. Ipuin lehiaketaren parte hartzaileak haurrak izan ziren. Arratsaldeko antzerki saioa beraiek eman zuten. Protagonista izan genituen haurrak, baina eurek emanez eta eginez. Hori horrela gerta zedin, eskolako irakasleak ez dira geldirik egon, noski; beraien bidez bideratu baita gehien bat haurren eguna, nahiz eta Altxata Elkartearen itzala izan duten.

❐ **Euskal Katekesi** eguna zela eta, 36 lagun joan ziren Etxalartik, haur, katekista eta guraso artean.





## ttipi-flash

❐ **Ezti** bila joan eta eramana dela ikustea ez da gauza atsegina. Eztia, ordea, eta erleak pozoinduak eta hilak aurkitzea samingarriagoa da, dudarik gabe, Horixe da aintzin horretan etxalartar bati gertatu zaiona.

❐ **Arbola** salmenta gero eta zailagoa dago, Alertze eta Insignis pinua behinipehin. Izan ere, enkante edo subastan ateratako lau arbola multzotatik bi bakarrik hartu dituzte, baina hirugarrenean, eta prezioa jeitsiz. Bertze biak enkantean sartu gabe saldu dira azkenean, Erkiziak egindako eskeintza ontzat emanez, Gobernuak hartarako baimenduta.

SAN FERMIN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

ORUBE
Elektrogailu dendak
Besta onak opa dizkizue
Bittiria Plaza 15, Tfnoa: 637197 - LESAKA

BERROTARAN
JANARI DENDA
Bittiria 41, Tfnoa: 637938 - LESAKA

ALKARTETXEA
JATETXEA
Alicia eta Carmenek zuzendua
Antoiu 26 - LESAKA

"ZZ" ZAPATADENDA
Besta onak pasa itzazue
Bittiriako Plaza 5, Tfnoa: 63 72 23 - LESAKA

BITTIRIA HARATEGIA
Bittiria 43 - Tfnoa: 627555
LESAKA

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

## IGANTZI

# San Juan Xar eguna, besta eguna Igantzin

Euri erasoek gogor jo bazuten ere, jendea ez zen kikildu

OSKAR TXOPERENA

Eguraldia aproposa egin ez bazuen ere, ohiturari jarraituz, San Juan Xar eguna ospatu zen Igantzin. Aspalditxotik ere, herriko zaharrei eskeinitako eguna izaten da hau. San Juanen ospatzen den meza egitea erdi kolokan ibili zen, bainan azkenean bertan ematea erabaki zuen apaizak, euri erasoei aurre eginez. Espero baino jende gehiago bildu ziren gainera, inguruko herrietakoak gehienbat. Ez zegoen, halere, bertan eguna pasatzeko moduko aroa. Ondotik urtero bezala, bazkarira bildu ziren zahar guziak, 70 inguru, Biltoki eta Udalak konbidaturik. Mus eta Partxis Txapelketa eta Jose Luis Seinek eskeinitako dantzaldiarekin eman zioten amaiera egunari. Aterpean pasatzeko eguna, benetan!



*Joan den urtean eguraldi hobea egin zuen*

### San Juan Xarreko erreserba

Gai beretsuarekin segituz, aipatu beharra dago Udalak eta Nafarroako Gobernuak onartu egin dutela bertako arboldegia moldatzeko proiektua.

700.000 pzta inguru kostako da bertako erresertxukuntzea. Eginen dena, zera da: txopoak hondatuak daudenez, bertatik kendu eta hutsuneak, bertako arbolez bete, San Juanen dagoen arbola klase batez bereziki: bago xaharra edo, erdaraz, 'Carpe' deitzen dena. Arbola klase hau ez omen da kasik inon harrautzen.

### Obrak eskoletan

Eskolako Parkea moldatzeko eta gasoilezko kalefakzioa paratzeko 2 milioi inguruko laguntza eman dio Udalari Nafarroako Gobernuak.

### Pala Txapelketa

Hogeitalau lagunek eman dute izena Pala Txapelketan parte hartzeko, sei bikote lehengo mailan eta bertze sei bigarrenean.

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LAINO
HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo guztietako mobleak
ERAKUSKETAK:
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 637034 - LESAKA
Larunbat arratsaldetan zabalik

LORA DENDA
TXIRULA
Bitiria LESAKA
Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

JOHN DEERE
S. Semper
Nekazal Tresneria
Salmenta eta konponketa tailerra
Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, 631238Tfnoan, Agerra Industrialdean

ARANTZA

# Herriko gaztetxoak sasoi betean datoz

## Amaia Telletxeak hirugarren postua lortu zuen bertsotan eta futbitokoak txapeldunak

JON LARRETXEA

Badirudi bertsoa osasun onez dagoela Arantzan ere; orain berriro jokatua da Nafarroako txapelketa 14-18 urteko tarte horretan eta Ibaialdeko Amaia Telletxeak hirugarren postua lortu zuen, Nafarroako txapelketan nagusian finalera sartu ziren Xabier Silveira eta Estitxu Arozena lesakarren ondotik. Hona Amaiak *"zure aurrean txaloka ari zaizun adiskideari"* gaia eman eta bota zuen bertso bat:

Gaur ni bertsotan ari natzaizu
hemen balda honetatik
eta zu hortik neri begira
ondo ikusten zaitut nik
neroen lana ondo betetzen
gaur ari naizen ez dakit
bainan entzule eskerrikasko
zure txalo hoiengandik.


Amaia Telletxea, bertsolari gaztea


Gazte hauei aurre eginen dionik ez dago hemen inguruan

### Jota fuego kiroletan

Orain dela gutti herri kiroletan ziren, oraingoan berriz futbiton izan dira garaile Arantzako gazte taldea.

Bortziriak mailan jokatu da txapelketa hau, Lesakako Beti Gazte elkarteak antolatuta eta finalean Beti Gazte beraren kontra jokatu behar izan zuten, hauei ere irabaziz.

Gazte hauek apuntatzen diren guzian irabazi egiten dute eta kitto. Aipatzekoa da ere Jose Ramonek egiten ari den lana gaztetxo hauekin, berak prestatu eta animatzen bait ditu.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.
Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA
* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu
Itzea 4, behea – BERA Tfnoa: 63 10 91

## SARA

# Frontoi luzeko taldea berriro piztu da Saran

Bertzalde, esku huskako txapelketa ere aintzineratzen ari da

OLHAIN ELKARTEA

Berriro luzeko taldea piztu da Saran eta sortzez eta bihotzez saratarra den Claude Guerobe dugu sustengatzaile nagusia. Jokolariak hauek dira: Guillaume eta Manu Fagoaga, Mixel Elizalde, Pouyet anaiak eta Philippe Calvet. Luzean ez ezik, Joko Garbin ere aritzen dira. Lehen urte huntan jada xapelketan parte hartu dute nahiz ez asmoen araberako emaitzak lortu. Hala ere, ohoragarria zaiku ohidura zahar hunen erreberritzea molde huntan.



*Junior taldeko pilotariak* ARTXIBOA

### Esku huskako azken emaitzak

• ***Helduak***, *Euskal Herriko xapelketan:* Arizkorreta eta Elizaldek galdu final zortzigarrenetan, Uzteritzen aurka, 23-30; 2. seriea. Arotzarena-Diber final laurdenetan irabazle Miarritzen aurka, 30-26; 2. seriea.

• ***Gazteak***, *Euskal Herriko xapelketan:*

• ***Juniorretan***, Mariluz-Etcheverry final laurdenetan irabazle Hazparnen aurka, 30-7. Bertze gainekoak, galdu egin zuten azken 16garrenetan:

• ***Cadets*** mailan, Stephane Barneix eta Mattin Chapartegi, **Benjamins** mailan Mattin Juanena eta Erramuntxo Errandonea eta **xitoak** mailan Xabier Errandonea eta Patrick Mariluz.


# Uda ikastaroak

**BARNETEGIAK**

**Uztaila, Abuztua, Iraila**

Maila Guziak + EGA + ALFABETATZEN

**NON:**

• ARANTZA
• BERA
• DONEZTEBE
• LEITZA
• LESAKA
• BIDARRAI

**Telefonoak: (948) 22 22 46 IRUÑEA.**
**(948) 63 77 96 LESAKA.**
**(945) 28 89 22 GASTEIZ.**




**KANPO IKASTAROAK**

**Uztaila, Abuztua, Iraila**

Egunean 4 ordu goizez

Maila Guziak + EGA + ALFABETATZEN

**NON:**

• BERA
• DONEZTEBE
• LEITZA
• LESAKA
• ARANTZA

**Telefonoak: 45 15 55 DONEZTEBE.**
**63 77 96 LESAKA.**

## SUNBILLA

# I. Mountain-bike ibilaldia burutuko da uztailaren 5ean

Bertzalde, 640 kilotako sokatiralariak ezin izan zioten txapelari eutsi

JOSUNE eta IXABEL

Uztailaren 5ean, Sunbillako I. Mountain-bike ibilaldia izanen da. Ibilaldi honek 25 kilometro izanen ditu eta goizeko 10etan hasiko da. Parte hartu nahi dutenak, bere izena eta 500 pezeta eman beharko du, Ulibeltza elkarte ondoan, goizeko 9,30ak bitartean. Bertan kamiseta bat emanen zaie partaideei. Bukatu ondoren, Ulibeltza elkartean partaide guztiak luntx bat izanen dute. Antolatzaileek, kaskoa beharrezkoa dela erran dute.




### VI. Paleta Goma txapelketa

Berriki eman zaio hasiera herritarren arteko seigarren paleta goma txapelketa. jokalariak, lau taldetan banatu dira: 1. kategoria, 2A, 2B eta neskak. Beste aldera, haurrak, eskuzko txapelketa jokatzen ari dira ere. Final guziak herriko bestetan jokatuko dira.

### Nafarroako 640 kilotako sokatira txapelketa

Ekainaren 14ean Sunbillan ospatu zen Nafarroako sokatira txapelketaren finala, 640 kilo azpiko kategorian, partaideak honako hauek izanik: Sunbilla, Ultzama, Gartzain, Amaiur, Bera eta Basaburua.

Amaiur izandu zen garailea 15 punturekin eta sunbildarrak bigarren postuan gelditu ziren 14 punturekin.

❒ **Karrika nagusian** pasatzen diren ibilgailuen abiadura neurtzeko radar bat jartzea eta bertan oinezkoentzat pasabideak eta «ibilbide arriskutsua» paratzen duten seinaleak ezartzea eskatuko du Udalak.

❒ **Ur ekartzea** moldatzeko 1.064.010 pztako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuak, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bi ikerketa burutuko ditu aldiberean ekainaren bigarren hamabostaldian Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako herrietan. Alde batetik, *Euskararen Egoerari Buruzko Ikerketa Soziolinguistikoa* eta bestetik, *Ttipi-Ttapa Zonaldeko Informazio Aldizkaria*ri buruzko merkatu ikerketa eta marketing plana.

Aipatu ikerketa, *Area-2.000* eta *Soziologi Lantegia* enpresek burutuko dute; lehenak proiektuaren koordinazio globala eta marketing planari dagokionez eta bigarrenak, soziologi azterketa lanari dagokionez.

Ekainaren 15etik uztailaren 5a bitarte, inkestatzaileak etxez-etxe ibiliko dira, behar bezala kredituatuak, ikerketaren galdetegia osatzeko.

Horrela bada, ikerketa hauek modu egokian burutu ahal izateko, guzion laguntza eskertzekoa da.

BELARRA Kafetegia
Plater konbinatuak
Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA
Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

## DONEZTEBE

# Euskaltegian ikastaroak eginen dira udan

Bi eta hiru astetakoak izaten dira, jan eta lo bertan eginez

TXEMA ALDABE

Euskaran pauso haundi bat emateko, hitz batean euskaraz bizitzeko hemen inguruan udan eta hiru hilabetez IKAk antolatu ditu barnetegiak, hau da, lo eta jan bertan eginez, euskara ikasteko ikastaroak. Horietako bat, Donezteben dagoen Mendaur barnetegian izanen da, udan erabiliko dena. Uztailan eta abuztuan, 3 astetako barnetegiak eta erdiko mailakoak. Irailan, berriz, bi astetakoak. Dena den, Leitza, Lesaka, Arantza, Beran eta Bidarrain ere izanen dira maila guziak osatu arte. Bertze aukera, egunean lau orduko ikastaroak egitea litzateke. Informazio gehiago jasotzeko deitu 451555 tfnora.




❒ **Uztailaren** 1ean hasita ofizial bat eta lau laguntzaile hartu ditu Udalak INEMen laguntzarekin, argiteria eta saneamendu sareak moldatzeko.

❒ **Arkupeak** elkarteak, Aralar eta Ezkurra inguruak bisitatuko ditu Uztailan zehar.

❒ **624.490** pztako dirulaguntza jasoko dituzte kirol elkarteek Udaletik. Hauetik, 330.500 pzta Erreka elkarteak, 178.000 Mendaur pilota eskolak eta 117.990 laxoa taldearen Tiburcio Arraztoak.

## ELGORRIAGA

# Bainuetxearen bideragarritasuna estudiatzen ari dira

Nafarroako Gobernua eta Gemasa enpresa, 15 milioetako aurrekontuarekin

J.I. OLAZAR

Bainuetxearen plangintza teknikoaren bideragarritasun estudioa egiten ari dira gaur egun Nafarroako gobernua eta Gemasa enpresa. Uraren kalitatea eta kopurua ikusteko putzu berri bat eginen da PVCrekin eta 15 eguneko epean eginen da plana. lan hauen aurrekontua 15 milioi ingurukoa da.

❒ **Ekainaren 4ean**, estankoaren sukaldea erre zen eta zenbait egunez itxita egon behar izan da. Malineako bajeran ireki dute probisionalki jatetxea.

❒ **Kultur** egunak burutu ziren ekainaren 6 eta 7an. Trikitilariak, Populis taldea eta margo eta burdin lanen erakusketa izan ziren, Rafael Ubarri eta Fco. Aiestaranen eskutik.



BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 450014
BEINTZA-LABAIEN

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

12
Ostatua
Ameztia 12. Tfnoa: 450153. DONEZTEBE



# LESAKA

**Uztailak 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10ean**



TELLECHEA

**Larunbata, 4:**

**5etan** Herriko Pilotalekuan, VII San Fermin judo lehiaketa librea, haurrentzat.

**7etan** Udal pilotalekuan, Herri Kirolak: Herriz herri: Arantza - Bera - Lesaka. Sokatira eta proba konbinatua (aizkora, arpana, kozkorrak, zakuak, 400 m.). **Gaueko 10etan** Herriko pilotalekuan, Irain dantza taldearen erakustaldia.

**Igandea 5:**

**Goizeko 11etan** Oinarrizko Txirrindularitza Eskolen Lasterketa;

**1etan** Plaza Zaharrean, Lesakako Musika bandaren emanaldia. **Arratsaldeko 6etan** Frontoian, pilota partiduak, Arkupe Elkarteak antola-

Deñe
LENTZERIA ✪ MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14 – Beheko Plaza 8, LESAKA

XATURETXEA
Fonda
Tfnoa: 63 70 27 - LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127 LESAKA

ARRATZUBI
ARDOTEGIA
Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - LESAKA

Tellechea
ARGAZKI ESTUDIOA • LIBURUAK
TABAKOAK • PAPERTEGIA
Plaza Zaharra 6, Tfnoa: 637281 - LESAKA

TELEBOTE
OSTATUA
XOLOMOA
ETA TXISTORRA
Arretxea 10
Tfnoa: 63 71 88
LESAKA





tutakoak: Paleta Gomazko VI. Txapelketaren finalak, lehen eta bigarren mailak (emakumeak). Pala erdiko IV. txapelketaren finala.
**8etan** Plaza Zaharrean, Musika, "Arkaitz" taldearekin.

**Astelehena 6:**
**Bezpera Eguna**
**Goizeko 11etan** Tour de France herritik pasatzerakoan, Tour de France-ren zuzendariari, Marino Lejarretari eta Xabier Albistur-i, San Ferminetako zapia ezarriko zaie, Plaza Zaharrean;
**12etan** Herriko Etxetik igoko den altxaferoaren


TELLECHEA

*ONIN Agentzia*

- Aseguruak
- Errenta Deklarazioa
- Kontabilitatea
- BEZ edo IVA Deklarazioa
- Eskrituren Likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- *ZUNZARRENen* kolaboratzaileak

Albistur 53, Tfnoa: 63 73 59 - LESAKA

*IBAIONDO*
*Janaridenda*

Antoiu 19, Tfnoa: 63 77 86 - LESAKA

KOSKILLA OSTATUA
AURTEN BESTETARAKO
OSTATU BERRIA
ZARANDIA 4 - LESAKA

FRONTOIKO OSTATUA
Lesakarren zerbitzura urte guzian
☎ 627518 - LESAKA





TELLECHEA

eztandak, Marino Lejarreta bertan dagoelarik, emanen die aurtengo bestei hasiera. Berehala, txistulari, soinulari, trikitilari eta haur txikien danborradak girotuko dizkigute herriko kaleak euren soinu alaiekin ; **Arratsaldeko 3,30etan** Kadete mailako txirrindulari Lasterketa, VI. Marino Lejarreta Lehiaketa, Beti Gazte elkarteak antolatua, Lejarretaren Lagunen babesarekin eta Lesakako Udalaren laguntzarekin. **5etan** Tantirumairu ikastolaren dantza taldearen erakustaldia.
**8etan** Peña guztien or-

BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA
Bittiria
Tfnoa: 62 79 31
LESAKA

TALLERES
LESAKA
KOTXE KONPONKETAK
Bittiria 36, Tfnoa: 63 72 84 - LESAKA

ETXEBERRIA
OSTATUA
Plaza Zaharra 21
Tfnoa: 63 77 00
LESAKA

TELLETXEA
ARMERIA
EHIZTURIENTZAT
JANTZIAK
Plaza Zaharra 6
Tfnoa: 63 72 81
LESAKA

Moon Travel
BIDAI AGENTZIA - MINORISTA - C.I.E. 2028
MALDAERREKA S.A.
Bittiria karrika
Tfnoa: 637404
LESAKA
"Zerbitzuak ezberdintasuna ezartzen du"





SADABA - ERRO
ZURGINDEGI LANAK OROKORREAN
Tfnoak: 63 78 62 - 63 79 87 - LESAKA

IRAZOKI JANARIDENDA
Arretxea 12, Tfnoa: 63 70 85 - LESAKA

KASINO JATETXEA
Besta onak pasa itzazue
Tfnoak: 63 72 87 – 63 71 52
Plaza Zaharra
LESAKA

ELKAR AUTO ESKOLA
Tfnoa: 637870 LESAKA • Tfnoa: 580077 ELIZONDO

SEGUROS BILBAO
Karrika Nagusia 22, Tfnoa: 451610 DONEZTEBE
GARANTIA OSOKO ASEGUROAK
AEGON • M.N.A. • VITALICIO
A.M. • UNIAL • AMAYA
VASCO NAVARRA • LA BELLE • LLOYD

Labekoak Goxotegia
Plaza Zaharra 4, Tfnoa: 63 72 56 - LESAKA

IZARRA
OKINDEGIA
Plaza Zaharra 13
Tfnoa: 63 78 55
LESAKA





TELLETXEA

dezkariak altxaferoa bota ondoren, danborrada nagusia abiatuko da, Erraldoi eta Buruhaundi; danborjole eta soinulari; Lesakako Banda eta guztiz, herri osoari itzulia emanez kalez-kale. **Gaueko 12etan** Musika Plaza Zaharrean "Minxoriak" taldearekin. "Los Incansables" txaranga kalez kale.

**Asteartea 7:**
**San Fermin Eguna**

**Goizeko 8,30etan** Ezpatadantzarien meza ixila; **9,30etan** Goiz-argi soinua;**11etan** Udalbatza bertze agintariekin, ezpatadantzari eta soinulariekin batera, herriko ikurrak aintzinean dituztela, abiatuko dira Herrikoetxetik elizara, Meza Nagusira. Meza ondotik, Fermin zaindariaren irudiarekin herri guzitik prozesioa. Ibilaldia berriro Elizan burutu ondoren, Udalbatza, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren eran jaitsiko dira Eskol-ttikira, Onin errekaren bi aldeetan egiten den **Zubigainekoa** dantza, orain 500 urte

ESTHERATEAK, C.B.
Zarandia 9 ☎ 63 74 23 ☎ 61 03 19 LESAKA

SASKI BERRI
OSTATUA
Bittiria 35, Tfnoa: 63 72 63 – LESAKA

ZURGINDEGIA
MEKANIKA

**matías uranga telletxea**
Beko-Errota baserria Tfnoa: 63 77 15
**lesaka**

*ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK*

**ERRO BIDAIAK**
✘ HERRIAK
✘ MENDIAK
✘ TURISMOA
✘ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK
BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015
*ADUANA KALEA, 5*
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

lesakarren artean lortu zen pakea oroitarazten digunak, ikustera. Berehala, Tantirumairu doinuari dagokion ikurrin-agurra zubigainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko-Etxera igan aintzinean ; **Arratsaldeko 6etan** Bezperak: Elizarako eta Elizatiko joan etorria Meza Nagusira bezala eginen da. Bezperak akitu ondoren, eta ohiturari jarraituz, Mutil dantza, San Fermin Dantzaren Sarrera, esku-dantza, aurresku eta jotak, Plaza Zaharrean. **Arratsalde eta gauez** Mu-


TELLECHEA


ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Tfnoa: (948) 637266

BORTZIRI
«UNSION ANAIAK»
SUKALDERAKO ALTZARIAK

MIKELAJAUREGI
ARRAINDEGIA
Albistur 19, Tfnoa: 63 70 46 – LESAKA

ERDIKO - ERROTA
BURDINDEGIA
Bittiria Plaza - Tfnoa: 637 198 - LESAKA

Bada bertzerik...
baina ez hau bezalakorik!
EROSLE
BORTZIRI
Bittiria 67, Tfnoa: 63 03 77 – LESAKA

FAGOAGA
HARATEGIA
Albistur 19
Tfnoa: 62 78 69
LESAKA



sika, Plaza Zaharrean, Joselu Anaiak taldearekin. Los Incansables txaranga egunero bezala, kalez kale.

**Asteazkena 8:**
**Peñen Eguna**

**Goizeko 10,30etan** Peñen danborrada; **12,30etan** Betizuak, Plaza Zaharrean; **Arratsaldeko 6etan** Herri Kirolak Plaza Zaharrean: Larretxea - Arrospide aizkolariak eta Saralegi harrijasotzailea. **Arratsaldez eta gauez** Musika Plaza Zaharrean, Izadi taldeareki eta Los Incansables txaranga herri guzitik.

BLOODY MARY
Diskak eta inportazio erropa
Cipriano Larrañaga 9 - behea
☎ (943) 61 43 60
Fax (943) 61 43 60
20300 IRUN

MOLINO
OINETAKOAK
Zure oina zabala edo problematikoa bada, neurrira egindako oinetakoak baina hobeak aurkituko dituzu, moda modakoak.
Pª Colon 29, 943-611266 IRUN

Sanferminak ongi pasa
ttipi-ttapa

Silvia
ZAPATERIA
Poltsoak eta gazteentzako oinetakoak
Besta Zoriontsuak pasatu
Luis Mariano, z/g - IRUN

koxkonta
sagardotegia
erretegia
Otsango auzoa
Tfnoak: 627503 / 627519
LESAKA







**Ortzeguna, 9:**
**Haurren Eguna**
**9,30etan** haur koxkorren danborrada, Lesakako kordiloari taldearekin. **12,30etan** betizuak Plaza Zaharrean. **Goizez eta arratsaldez** Plaza Zaharrean "Pista Libre & Gunfly's" haurren ikuskizunak: kars, puzgarriak, zezen mekanikoa, rollen pista. **Arratsaldeko 6etan** frontoian, esku pilota partiduak, Arkupe elkarteak antolatuak. **Arratsalde eta gauez** musika, Plaza Zaharrean, Egan taldearekin eta Los Incansables txaranga herri guzitik.


TELLETXEA

**AMAIUR**

**10. URTEURRENA**

Tfnoa.: (948) 45 04 00

DONEZTEBE

AENOR
Producto Certificado

**5 urtetako garantia sukaldetan**
**AENORek homologatua**






- VEGASA Sukaldeak
- Bainuak
- Mahaiak - aulkiak
- Elektrogailuak:
  - Miele
  - NEFF
  - AEG
  - Fagor





TELLETXEA

**Ortzirala, 10**
**Ezkonduen Eguna**
**12,30etan** betizuak Plaza Zaharrean.
**3,30etan** "XLVI. Txakain Txirrindulari Saria", 1. eta 2. mailako afizionatuan Euskaldun Lehiaketarako puntuagarria den karrera, Basurde elkarteak antolatua, Udalaren babespenarekin. Ibilaldia: Lesaka, Botxo, Berako Saihesbidea, Lesaka, Igantzi, Igantziko Bentak, Sunbilla, Mugaire, Irurita, Baztango begiratokia, Belateko karretera generalaren bidegurutzea, Mugaire, Sunbilla, Igantziko Bentak, Lesaka, Igantzi, Igantziko Bentak, Lesaka, Igantzi, Igantziko Bentak,

CALVO
JANARIDENDA
LESAKA
PLAZA ZAHARRA, 2 ☎: 637 059
BESTA ZORIONTSU BATZU
OPA DIZKIZUEGU





Lesaka (helmuga), guztira, 115 kilometro. **6,30etan** Frontoian, pilota partiduak, Arkupe elkarteak antolatuak.
**Gaueko 11,30etan** Udal pilotalekuan, bertsolarien jaialdia Arrano elkarteak antolatua: Bertsolariak: Xebastian Lizaso, Peñagarikano, Egaña, Lopategi, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira. **Arratsaldez eta gauez** Musika, Plaza Zaharrean, Gau-Bela taldearekin eta bukaeran, "Jaihilak". "**Los Incansables**" txaranga egunero bezala.


TELLETXEA

* PEPI *
IZOZTUAK
Bittiria 35
Tfnoa: 63 72 63
LESAKA


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
• Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

ALTZURI
ELEKTROGAILUAK
ZUEN ZERBITZURA GAUDE
Etorri eta ikusi "esposizioan" ditugun elektrogailuak, alarmak, atezain automatikoak eta B.T. instalazio elektrikoak.
Presupuestoa konpromisorik gabe
Bittiria 41, Tfnoa 637531 - LESAKA

LEIZA
ZURGINDEGIA
Tfnoa: 63 72 55
LESAKA





TELLETXEA





ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

☞ ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA
GRES ETA AZULEJOETAN
☞ AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOTAN

Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)
61 17 67
IRUN

BESTA ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUEGU

# MATXINBELTZENEA - LESAKA



✗ EUSKALTEGIA
✗ BARNETEGIA
✗ ALBERGEA

**KATTU**
*Ostatu*
*Jatetxea*
*Tfnoa: 637796*

*San Ferminetan ere euskal giroari eutsi!*

Ikastari

## *MARIXUS*
*Elektrogailuak*

**ENETERREAGA ANAI-ARREBAK**
Zarandia 3
Tfnoa: 63 70 70
31770 **LESAKA**





☛ ITURGINTZA
INSTALAZIOAK
☛ ELEKTRIZIDADEA
☛ ANTENAK

## ITUREN

# Bestak hilabete honen 17tik 21a bitarte ospatuko dira

Bertzalde, idazkari edo sekretario berria estrenatuko dugu Ituren eta Zubietan

IBAN ISASI

Egitarauaren berri zehatzagoa hurrengo alean emanen badugu ere, dagoeneko erran daiteke ortziralean hasi eta asteartea bitarte luzatuko direla bestak. Dantzaldiak, bazkaria, crossa, haurren jokoak etabar izanen dira egitarauean. Eguraldiak aldaketa haundia egin beharko du, bertzela, Iturengo plazan giroa egonen baita.



### Idazkari berria Ituren eta Zubietan

Pello Oskoz hilabete honetan badoaiela eta, bere ordezkoa, Belarra jauna, hasia da dagoeneko lanean.

Bera izan da, jakitera eman dutenez, lan honetarako oposizio proba diferentziarekin ere, hobeki egin zuena.

**ttipi-flash**

❒ **Suhiltzaileen** gaueko zerbitzua eskatzeko Baztango Udalak bidalitako mozioa, aho batez onartu du Udalak

❒ **Hainbat** Iturendar arduratu da azken egunotan Nafarroa Komandoarekin ustez erlazioa izateagatik detenitutakoen egoera ezagutzeko (Sotero, David, Kali eta Bittoriano). Honela bada, bere elkartasuna adierazteko, hainbat joan ziren Baztan aldera detenituen aldeko asanblada eta manifestazioan parte hartzeko.

## ZUBIETA

JUAINAS

Eguraldia ez dugu aipatuko, dirudienez, Baztandarren San Primok arrazoia baitu. Eskerrak tarteka eguzkia agertzen den, Trinitate Egunean bezala. Fiestak euririk gabe hobiagoak baitira.

Besta berria polita izan zen, ohizko gauzei pare bat berri gehitu bait zitzaion: gurutzearena eta estalpearen estrenua.



**Gurutzearena** zera da. Nonbait lehen genuen apez jaunak duela 13 bat urte Zubietarra den zilarrezko gurutze dotorea Museo Diozesanora eraman zuen, berak jakinen duen arrazoia zein den. Aurten ekarri da berriro herrira, alkate eta apeza eske joan eta nahiko kostata izan bada ere. Fotografiak atera baldin badira, hor izanen duzue ikusteko aukera.

**Estalpearena**, berriz, hori besterik ez. Besta Berrirako erabili izan genuela, baita behar ere, ilunabarrerako euria hasi baitzuen.

Eguraldia ez nuela aipatu behar!

## LEITZA

# Baliteke Sarriok ere lana murriztea

Bestalde, aurtengo udal aurrekontua 505 milioitakoa da

ANTTON ERKIZIA

Jose Lacavek, Sarriopapeleko gerenteak komiteari berriki aditzera eman dionez, litekeena da lanpostu erregulazio txikiren bat burutzea Leitzako Paperan ere. Ez omen zuen beste zehaztasun haundirik aurreratu. Gauza omen da, papera asko dagoela almazenetan atera gabe, "Estucados" eta "Eurocalco" sekzioetan batipat. Momentuz, jende berririk ez da hartuko, ezta ebentual ere. Abuztuaren lehendik 23ra "Estucados" itxi eginen da erabat, oporretan.

### Bi medikuek aldegiten dute

Seguruenik, bi medikuek, Arantxa Urtasun eta Koro Orejak Leitzako Osasun etxea utziko dute, Iruñean atera diren postu berri batzuk hartzeko.

### Udal aurrekontuak: 505 milioi

Udalak onartu ditu aurtengo aurrekontuak edo presupuestoak. Ibili eta buelta, azkenean batzuren eta besteen eritziak entzun eta aldaketak sartu ondoren, Batzar bereziak baietza eman zion udal-aurrekontuei. Denetara, 505 milioi gastatuko dira. Besteak beste, 80 milioi soldata eta aseguruetan; 36 milioi prestamoak itzultzen... Eta partidarik haundiena, 293 milioi herri erdiko zeharbide edo trabesia eta espaloiak egiteko.

❐ **Askatasuna** eta Pakea lemapean, Euskal-Herriari itzulia abiatzekoa zen herriz herri, eta uztailaren 10ean pasatuko da Leitzatik. Gernikako bonbardaketa oroitarazten duen Batzordeak antolatzen du martxa hau.

❐ **Bi leitzar** Bartzelonako olinpiadetan: Olinpiada " ofizialetan" ez dira sartzen Herri Kirolak, baina Kultur Olinpiadetan bai. Eta uztailaren 4ean, atsaldez, Mikel Saralegik orga eta gurdijokoan eta Narciso Saralegik harri jasotzen, ordezkatuko dute Nafarroa Barcelonan, beste hainbat kirolarirekin.

❐ **Angel Perez** "Uxategieta" maixuak omenalditxo bat izan zuen eskolan, ikasturtearen bukaerarekin batera. Angel Perez 25 urte luzez izan da irakasle Leitzako eskolan, eta orain jubilatu berri berria da.



# Herriko trikitixa txapelketan 15 bikote aritu ziren

Ez da gutxi herri koxkor batetik izateko

Leitzan, herritarren arteko Trikitixa Txapelketa bat egitea bururatu zitzaion norbaiti. Eta 15 bikote azaldu ziren (15, aizu!), denak bertakoak. Ez da broma gero, herri koxkor batetik izateko.

Dudarik gabe, hilabete askotako pazientzia eta lanaren emaitzak ziren han ageri zirenak. Billabonako Martin ezik, beste batzuk ere gogor aritu dira.



*"A" Taldean (9-10 urtetako neska-mutikoak), Izaskun eta Amagoia izan ziren txapeldun. Beraiekin batera, Miren eta Nagore, Laila eta Nekane eta Igone eta Nagore aritu zirenak.*



*"B" Taldean (11-13 urtetakoak), Melania eta Ainara irabazleak. Hurbil aski egon ziren Oihana eta Ziortza, Ion Ander eta Iker, Ainara eta Pello, Onintza eta Aintzane eta Naiara eta Nerea.*



*Eta 14 urtetik gorakoen taldean, Izaskun eta Kristina txapeldunak. Eta talde hortan berean Maite eta Ione, Maider eta Asier, Jaione eta Amaia eta Oihana eta Eneko aritu ziren. Eta nola ari ere!*

GOIZUETA

Seigarrena ere lortu da!!!

# Emozioz betetako finala Goizuetak eta Lizarrak jokatutakoa



ESTEBAN AROZENA

Orain bai esan litekela Herriarteko Txapelketaren marka guztiak hautsi dituztela Goizuetako pilotariek, seigarren titulua baita Iruñean lortutakoa, hau da, Larraunek baino bat gehiago. Hortaz gain esan behar da, aurtengoarekin hirugarren urtea jarraian etorri dela txapela gure herrira.

Aipagarria da bestalde, titulo hau ospatzeko Umore Onak antolatu zuen afaria eta ondorengo giroa, 100 lagun inguru bildu bait ziren elkarteko mahaien inguruan. Goizeko laurak arte luzatu zen hango festa, Xabier Berroeta eta bere taldea protagonista bihurtu zirelarik eskeini zuten berbena inprobisatuarekin.

**INTERPUEBLOS AZKEN 13 URTETAN**

| Urtea | Txapelduna | Txapeldunorde |
|---|---|---|
| 1980 | Goizueta | Bera |
| 1981 | Larraun | Leitza |
| 1982 | Lizarra | Lesaka |
| 1983 | Goizueta | Eugi |
| 1984 | Larraun | Lesaka |
| 1985 | Lizarra | Goizueta |
| 1986 | Goizueta | Iruña |
| 1987 | Iruña | Goizueta |
| 1988 | Larraun | Iruña |
| 1989 | Iruña | Etxarri |
| 1990 | Goizueta | Burlata |
| 1991 | Goizueta | Lesaka |
| 1992 | Goizueta | Lizarra |

EZKURRA

# San Miguelen bisita

SantaKruz ermitan eman zitzaion ongietorria

Mª JESUS GASTEARENA

Urteroko ibailaldia egin du aurtengoan ere Miguel Goi Aingeruak.

Horrela, bada, ekainaren 1ean arratsaldeko 7etan ailegatu zen herrira, eta ohitura den bezala, jende ugari ateri zen Santa Kruzera Ezkurran dugun San Miguelen irudiarekin batera, ongi etorria ematera.

Irudi hauek, Nafarroan dauden bakarrak dira, bata Ezkurran eta bestea Iruñako 'Misericordia' etxean eta ongi etorria ematerakoan, biak elkarri musua ematen diote.

Segidan meza ospatu zen, eta hurrengo egunean meza ondotik, lur, landare eta herritarrek ere San Miguelen bedeinkapena hartu zuten.

Eta Ezkurratik Eratsunerako bidea hartu zuen.



*San Miguelen bi irudiek ohizko musua eman zioten elkarri SantaKruz ermitaren parean.*

BAZTAN

# Lau baztandar atxilotuak izan ziren polizia operazioan

## Udalak ez zituen ez HB eta ez EAren mozioak onartu

JOSEBA

Lerro hauek idazterakoan, polizi operazioak oraindik zabalik segitzen du. Detenituak, Xotero Etxandi Arraioztarra, Bittoriano Jauregi Amaiurtarra, David Altzugarai eta Kali Arnal Elizondokoak. Poliziak muga laguntzaileak izatea leporatzen die. Halere, kasu batzutan behintzat, ez zegoen akusazio zehatzik, baina Auzitegi Nazionaletik pasatu ondoren kartzelera eraman dituzte.

Honen ondorioz, Elizondon egunero asanbladak eta manifestazioak izan dira. Astelehena 22rako iragarrita zegoen Batzarre berezia, Udalak ortziralera atzeratu zuen eta honetan ez zen inongo akordiorik lortu, HBren mozioa atzera bota bait zen, EA, PSOE eta EAren botoekin. EAk bertze mozioa aurkeztu zuen eta hori ere atzera bota zen, UBk aurka botatuz eta HB abstenituz. Istiluak sortu ziren pleno aretoan eta suspenditu egin zen.


Baztango Udalaren pleno berezian, HBn mozioa atzera bota zen

### HBren mozioa

Mozioak zera zioen: "*atxiloketak, kontroletan ematen diren erretentzioak, etxe miaketak, etabar, arras ondorio latzak dituela*". Mozioaren lehen puntuan, "*detenitutakoek errugabetasun presuntzioa izan dezatela*" eskatzen zen Bertze puntuetan eskatzen zen baita, "*momentuero errespetatuak izan dakizkiela, hiritarrak izanik, detenitu orok dituen giza eskubideak, tramite arintzea geratatutakoa argi dadin*" eskatzen zen. Azkenik, "*detenituak libre uztea eta Baztanera ahal bezain laister ekartzea*" eskatzen zen. Azken puntu honekin ez ziren ados agertu EAkoak.

### ttipi-flash

❒ **Elizondoko** elizaren organoa konpontzeko Nafarroako Gobernuak 2.343.184 subentzioa eman du. Hau subentzio osoaren heren bat da.

❒ **Narbarteko** kontzejuak ura eskatuz sartutako eskariak ez du erantzunik hartuko, Oronoz-Mugairiko *"ur beharrak zenbaterakoak diren argitu artean"*. Udalaren erabaki an aipatzen denez, Ur Legearen arabera, Oronoz-Mugairik lehentasuna du, hartu beharreko iturria bere eremuan bait dago.

❒ **Almandoz** eta **Berroeta**ko herriak Balleko Etxetik bakoitzak hartzekoa zuen 100.000 pezetatako subentziorik gabe gelditukо dira. Arrazoia, herriko bestetan antolatuak zituzten musika eta ostatuak behar baino ordu gehiagoz idekiak egotea.

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ESTHER
LORADENDA
Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dugu
Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
Arropak, telak, anbientadore naturalak, gena, bainugatzak, intziensoa, larruak...

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

BAZTAN

# Subentzioak eman dira eskolentzat

Bertzalde, karreterak moldatzen ari dira Tour-a dela eta

Nafarroako gobernuak subentzio batzuk eman ditu eskolentzat. Baztani dagokionez, Arraiotzen kalefakzio aldeketa egiteagatik 1.494.000 pzta. hartuko dira; Azpilkuetan baita kalefakzioa moldatzeagatik, 1.700.000 pzta.; Elizondoko ikastolan, teilatua konpontzeko, 623.000 pzta.; ikastetxe publikoan (konzentrazioan) 148.000 pzta. eta Amaiurren larraina moldatu eta pintura emateagatik 595.000 pzta.



*Amaiurko eskolak ere moldaketak egiteko diru-laguntzak hartuko ditu*

## Karreteran konponketa

Gezurra badirudi ere Nafarroako Gobernuak Tour-ari esperatu dio karretera batzuk konpontzeko (Ikatzateko Bentatik Izpegirainokoa, errate baterako). Gainerako karreterak lehen bezala segituko dute, noiz moldatuko esperoan. Jakina den bezala, hilaren 6an pasatuko da Tour-a Baztandik.

## Belarretako kontu

Eguraldiak ez du deus laguntzen eta nekazariak erabat haserre daude, belarrak ezin egin izan dituztelako eta esnearen prezioa oraindik gehiago jeitsi delako, 30 pezetatara orain.

Bertzalde, *Leader* proiektuaren xehetasunen berri emateko, ekainaren 25ean, 9etatik 11etara, bi teknikari izan ziren Oronotz-Mugairiko San Martin eskolan.

❒ **San Pedroak** Erratzun bukatu ziren. Rock kontzertuan, Pottoka, Baleri Balerdi eta Arraiotzen sortu berri den Ortoska taldea aritu zen. Jende dexente hurbildu zen.

❒ **Amaiurko** sokatira taldea Bartzelonara doaie Nafarroako Txapelketa irabazi ondoren. Suerte ona izan dezatela.

❒ **Azpilkuetako** bestak Uztailaren 5etik 8ra ospatuko dira.

## *ttipi-ttapa* eta Xorroxinentzat diru laguntzarik?

Honezkero uztailan sartuak gaude eta oraindik orain, Baztango Udalak ez dio inolako erantzun ofizialik eman *ttipi-ttapa* eta Xorroxin irratiek sartutako diru-laguntza eskariei. Izan ere, diru-laguntza eskariak, azkeneko urteotan urtero sartu izan ohi dira, baina Baztango Udalak ez ditu inoiz kontutan hartu eskari hauek Euskara eta Kultura bultzatzeko urtero ematen dituen diru-laguntzak banatzerakoan.

Kontutan hartu beharra dago, bai *ttipi-ttapa* zein Xorroxin Irratiak bi diru iturri hauek guztiz beharrezkoak dituztela; bata udaletatik eta bertzea pubizitatetik biltzen dutena. Adibide modura, aurten Bortzirietako Udalek bi komunikabideei dirulaguntza ematen dieten bitartean, Baztangoak ez bata eta bertzeari.


FZ FOTO ZALDUA
ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat
ELIZONDO ☎ 580491
DOÑEZTEBE ☎ 450364
MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Beatriz Apaindegia
Espezializatutako zentru akreditatua
Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.
Zatoz eta *"Importancia de tu imagen"* liburua oparituko dizugu
Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

OSKORRI LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

IPARLA KIROLAK
• Kirolak orokorki
• Ekipamenduak eta trofeoak
Santiago 51 - Tfa: 58 05 85
ELIZONDO

## ZUGARRAMURDI

# Gaupasa antolatzen jende aunitzek parte hartu zuen

Biharamonean Besta Berri prozesioa problemarik gabe egin zen

MARGARI eta KORO

Azken alean gaupasari buruz hitz egiterakoan dei bat egiten ginuen herriko jende guztia lanerat animatzeko. Orain berriz eskerrak eman behar ditugu izan den laguntzarengatik. Bazeuden 10etan lanean hasi eta goizeko 6etan bukatu zutenak. Ea heldu den urtean berdin edo gehiago animatzen zareten.

Gaupasari buruz bazegoen bertze kezka bat ere: biharamunean Korpus eguna zela eta prozesionea egiteko manerik izanen zen edo ez. Egia da prozesionea egiteko momentuan oraindik plazan bazirela "gaupasatzaile" batzuk eta bazterrak zikinsko agertzen zirela, baina afera konpondu zen kaperaino eginez eta handik berriz bueltan elizara itzuliz plazan barna pasatuz.



❒ **Herria** garbiago agertzen zaigu. Herritarrek etxeko inguruak behin garbi ikusi ondoren halaxe mantendu nahi dituzte, bertze aldetik paperontzi berriak herriko xoko guztietan daude eta azkenik, Bartolo Huarte aritzen da goizero karrika garbitzen.


JUAN LARREGI
NEKAZAL TRESNERIA

Husqvarna DESBROZADORAK



235 R



240 R



245 RX

Alfa SEGAMAKINAK

- Alfa MF 70 Modeloa (Mezkla) **290.000 pzta.** (Zaharragatik 55.000 pzta emanen dizugu)
- Alfa MF 73 Modeloa (Gasolina) **345.000 pzta.** (Zaharragatik 65.000 pzta emanen dizugu)
- Alfa MF 86 Modeloa (Diesel) **380.000 pzta.** (Zaharragatik 75.000 pzta emanen dizugu)

Rapid SEGAMAKINAK

- Rapid 201 Modeloa (Mezkla) **395.000 pzta.** (Zaharragatik 50.000 pzta emanen dizugu)
- Rapid 201 Modeloa (Diesel) **432.000 pzta.** (Zaharragatik 55.000 pzta emanen dizugu)
- AEBI AM9 Modeloa (Diesel) **550.000 pzta.** (Zaharragatik 60.000 pzta emanen dizugu)

UDARAKO MENDI BIZIKLETAK
Santiago Karrika 10, Tfnoa 580898 – ELIZONDO

URDAZUBI

# Kurtsoa bukatzeko, aktibitate bereziez betetako eguna

## Eskolan bertan antzerki lanak eta dantzak, Plazan bazkaria eta dantzaldia

ALIZIA OLAIZOLA

Ekainaren 22ean eman zioten bukaera kurtsoari Urdazubi-Zugarramurdiko eskolan. Goizean, maila ezberdinetako ikasleek prestatutako antzerkiak eta dantzak izan zituzten, eta segidan, kontratatutako antzerki talde baten lana ikusteko aukera. Egunari akabera emateko herriko pilotalekuan bazkaria, eta dantzaldia, Jose Angelekin. Bertzalde, azken egunetan bidaiak ere eginak dituzte ikasleek. Ttikienak Hondarribian egon ziren 3 egun pasatzen eta 3-8. maila artekoak hiru ibilaldi egin dituzte Miarritze-Isturitz, Larun-Hondarribia eta Donostiara.





*Jose Antonio Sarratea, Pello Iriarte, Severo Galarregi eta Miguel Angel Munarriz, aurten komunioa egin dutenak.*

❐ Jantzigintza ikastaroaren bukaera ospatzeko, Anastasi Bidart irakaslea eta bere ikasleek afaria egin zuten Dantxariko Urhegia Jatetxean.


BAZTAN
FUNERARIA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

OLARI
Jatetxea
Tfnoa.: (948) 45 22 54
IRURITA



* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

RADIO BIDASOA
* Zure bideo erreportaiekin, pozik zaude?
* Atera nahi diozu etekin haundiagorik zure kamarari?
Radio Bidasoak ikastaro batzuk egiteko posibilitatea eskeintzen dizu, zure erreportaiak profesionalak bezala egin ahal izateko.
Orduaz hitzegin dezakegu, oinarrizko maila:
Grabaketa eta montaia
Kantonberri 1
BERA ☎ 630377

FOTO MENA ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55 – Santiago 40
ELIZONDO
Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91



Atrezzo
ARTE LAMINAK, POSTERRAK eta POSTALAK
MARKOAK
San Miguel Auzoa - IRUN Tfnoa. 61 51 43

**IRAGARKI HAU**
**5.200 ETXETAN SARTU DA**

**ZUREA ERE SARTUKO DA**
**PUBLIZITATERAKO**
**ttipi - ttapa ERABILIZ GERO**

**ttipi-ttapa**

**INBERTSIORIK ONENA**
**PREZIORIK MERKEENEAN**



## EZKONTZAK

**Joni Telletxea Mayo** eta **Maite Elizondo Mitxelena**, Lesaka eta Berakoa, ekainaren 5ean.

**Juan Carlos Pedan** eta **Esther Irazoki Alzuguren**, Berakoak ekainaren 6an.

**Joaquin Zia Oteiza** eta **Inmaculada Danboriena Castejon**, Oitz eta Berakoa, ekainaren 13an.

**Brigitte Sathicq** eta **Elie Fouque**, Sara eta Saint Maer des Fossésekoa, ekainaren 13an.

**Arantxa Arregi Alberro** eta **Fernando Martin Ibarra**, Doneztebe eta Elgorriagakoa, ekainaren 13an.

**Jose Benito Rodriguez Peña** eta **Mª Junkal Fernandez Martinez**, Orense eta Lesakakoa, ekainaren 20ean.

**Gerardo Alkain Kanpandegi** eta **Mª Eugenia Campo Rey**, Hondarribia eta Lesakakoa, ekainaren 20an.

**Zuzen Nikolas Karraskedo Mendiberri** eta **Mª Teresa Arregi Almandoz**, Elizondo eta Mugairikoa, ekainaren 20an.

## JAIOTZAK

**Jugatx Telletxea Alberdi**, Donezteben, ekainaren 13an.

**Mikel Oronoz Etxeberria**, Leitzan, apirilaren 19an.

**Irati Barandiaran Goikoetxea**, Leitzan, abenduaren 11an.

**Erika Astibia Zabaleta**, Leitzan, Apirilaren 20an.

**Edurne Jauregi Urkiola**, Leitzan, apirilaren 20an.

**Saioa Iriarte Etxegia**, Goizuetan, ekainaren 13an.

**Ibone Karrikaburu Frias**, Elizondon, ekainaren 4ean.

**Mirari Otxandorena Atxa**, Elizondon, ekainaren 9an.

## HERIOTZAK

**Matias Elizalde Gastearena**, Eratsunen, ekainaren 1ean, 76 urte.

**Jose Simon Zarzoso**, Beran, ekainaren 9an 34 urte.

**Jose Azkona Elizalde**, Beran, ekainaren 9an, 35 urte.

**Jose Perez**, Beran, ekainaren 16an, 80 urte.

**Marie Jeanne Perugorria**, Saran, ekainaren 8an, 71 urte.

**Lorenzo Ordoki**, Arantzan, ekainaren 6an, 35 urte.

**Francisca Maiz**, Arantzan, ekainaren 18an, 96 urte.

**Martin Miguel Sukuntza Zabaleta**, Leitzan, ekainaren 11an, 23 urte.

**Miguel Francisco Iturria Zozaia**, Lesakan, ekainaren 19an, 91 urte.

**Alejandro Telletxea Bergara**, Lesakan, ekainaren 13an, 89 urte.

**Felisa Lekunberri Soto**, Lekarotzen, ekainaren 13an, 82 urte.

**Victoria Mariñelarena Arrizabalaga**, Elizondon, ekainaren 14ean, 84 urte.

**Tomas Alli Agerri**, Elizondon, ekainaren 16an, 82 urte.

**Maria Juana Bikondoa Iturralde**, Iruritan, ekainaren 22an, 71 urte.

**Juliana Fernandez Lopez**, Elizondon, ekainaren 23an, 79 urte.

ASKIN OSTATUA
Bokadillo eta Plater konbinatuak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE



AMEZTIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - **DONEZTEBE**

# Nora joaten da jendea oporretan?

***Agentzia bidez kanpora doazenak, kostaldea eta irlak nahiago dituzte Estatuan eta munduan zehar, berriz, urteko modak agintzen du***

Udarekin batera oporrak hartzeko aukera izan duen jendeak maleta edo motxila bete, kotxea, bizikleta, autobusa edo dena delako garraiobidea hartu eta urte guziko nekeak ahazteko prest leku berrietarako bidea hartzen du, bere kontura. Bertze batzuk, ordea, agentzia batera joan eta bertako eskeintzarik onena aurkitzen saiatzen dira. Agentzia hauetako datuetan oinarritu gara erreportai hau burutzeko, zehazki errateko Elizondoko Zunzarren eta Lesakako Maldaerreka agentzietan, nahiz eta jakin jende askok ez duela bide hau aukeratzen oporretara joateko. Bertze zenbaitzuk, norberaren kontura ateratzen dira eta azkenik, oporrik ez dituztenak ere badaude.



Bi agentziotan jasotako datuen arabera, udako hilabeteak dira gehienak aukeratzen dituztenak eta noski, garai horretan zaila da ofertarik aurkitzea. Eskeintza onenak, urria, azaroa, urtarrila eta otsailan izan ohi dira, negu partean.

Estatu espainolean, ia jende guziak kostaldea aukeratzen du, Salou, Benidor, Canbrils eta Peñiscola izanik ohizko lekuak. Kanariar eta Balear irletara ere aunitz joaten dira baina barnekaldera inor gutti hurbiltzen da.

Munduan zeharreko bidaiak, urteko modaren arabera aldatzen dira, baina badaude leku finkoak ere: Mexiko, Guatemala, India, Thailandia, Tunisia, Turkia, Marokko. Lauzpabortz egunetako bidaiak egiteko Paris, Londres edo New York aukeratu ohi dira. Gero eta gehiagok hartzen dute Iparramerikarako bidea eta gehienak errepikatzen dute esperientzia.

### Gehienak hoteletan

Behin lekua aukeratuta gero, lo egiteko tokia bilatzea ere komeni da. Hotela da gehienak aukeratzen dutena. Duela urte batzuk modan zeuden apartemenduak behitira doazi, batez ere zakar xamar uzten zirelako eta apartotelak (bi



## ▲ TXAPELA BURUAN, IBILI MUNDUAN ▲

| | ZUNZARREN (ELIZONDO) | MALDAERREKA (LESAKA) |
|---|---|---|
| NORA? | **Estatu espainola %70a**<br>Kostaldera %50a<br>Irlak % 40a<br>Barnekaldea %10a<br>**Mundua %30** | **Estatu espainola %50a**<br>Salou-Benidor-Canbrils-Peñiscola % 60a<br>Irlak % 40a<br>**Mundua %50a** |
| NOIZ? | **Ekaina, Uztaila eta Iraila**<br>**Ofertak:** Urriatik-ekaina bitarte | Familiak **Ekaina eta Uztaila**<br>Gazteak **Uztaila eta abuztua**<br>Bikoteak **Abuztua**<br>Bakarka, **udatik kanpo** |
| NON? | **Hotelak %75a**<br>**Apartotelak %25a** | **Hotelak %60a**<br>**Apartotelak %40a** |
| NOLA? | **Autobusean %20a**<br>**Ibilgailu partikularrean % 80a** | **Estatuan Autobusean %30a eta**<br>**Ibilgailu partikularrean % 70a**<br>**Kanpora abioiean % 100a** |
| NOREKIN? | **Bikotearekin, % 40a**<br>**Familiarekin % 40a**<br>**Lagunekin % 15a**<br>**Bakarrik % 5a** | **Bikotearekin, % 40a**<br>**Familiarekin % 40a**<br>**Bakarrik % 15a**<br>**Lagunekin % 5a** |
| UDA HONETAN ESKEINTZA BEREZIA | **Nora:** Ibiza - Costa Brava<br>**Noiz:** Ekainan, aste bat eta 15 egunen artean.<br>**Prezioa:** 50.000 pzta | **Nora:** Sevillako Expora, 4 egun, autobus-litera<br>**Prezioa:** 12.500 pzta<br>**Nora:** Parisera 6 egun, bidaia eta hotela.<br>**Prezioa:** 26.000 pzta |

gela eta sukaldea), berriz, goiti. Bertze gutti batzuk, billetea bakarrik hartzen dute, egonaldia bere kontura eginez, camping, pentsio eta horrelakoetan.

Bidai lagunak hautatzerakoan, familia eta bikotea hartzen dira, gehienetan. Lagun koadriletan eta bakarrik guttiago joaten dira, azken hauek Hego Amerika eta Asia (India) aukeratzen dutelarik.

### Oporretan ikasiz

Bidai mota hau gero eta gehiago erabiltzen da, gehienetan inglesa ikasteko asmoz (300.000 pertsona ateratzen dira Estatutik Inglaterra eta Irlandara). Halere, turismo mota hau masifikatu egin da eta kalitatea aunitz jeitsi da. Orain, ingles ikastekotan, Kanada, Nueva York eta Malta irla aukeratzen dute gazteek, prezio zertxobait igo arren.

Bertzalde, ez dira ahantzi behar Eurojoven, mundojoven edo unijoven bezalako mayoristak prezio berezietan eskeintzen dituzten bidaiak gazte eta ez hain gazteentzat.

Gusto baduzu, aukera behinipein badago.

AITOR AROZENA

# Amaiurrek berreskuratu zuen aurtengoan Nafarroako sokatira txapelketa 640 kilotan

*Sunbildarrak ezin izan zuten iaz lortutako txapelari eutsi, etxean jokatu arren*



Amaiurko taldea izan da aurtengo sokatira txapelduna, 640 kilotako kategorian ARTXIBOA

Amaiurko taldeak eskuratu zuen lehen postua ekainaren 14ean Sunbillako pilotalekuan jokatutako Nafarroako sokatira txapelketan, 640 kilo azpiko kategorian.

Mila pertsonaren aintzinean, Amaiur eta Sunbillako taldeek beraien maila hobea erakutsi zuten eta gainontzeko taldeek lehia gogorra izan zuten hirugarren postuaren bila.

Azkenean, Amaiurrek lortu zuen txapela, nahiz eta lehen tiraldia galdu eta bertze tiraldi bat baliogabetzat eman. Ondorengo bi tiraldietan, aldiz, amaiurtarrak nagusitu zitzaien sunbildarrei. Hauek, iaz Amaiurreri gertatu zitzaion bezala, ezin izan zuten etxean txapela lortu.

### Sailkapena

Sailkapen orokorra modu honetara gelditu zen.

1.- Amaiur, 14 punto.
2.- Sunbilla, 13 punto.
3.- Ultzama, 6 punto.
4.- Bera, 5 punto.
5.- Basaburua, 4 punto.
6.- Gartzain, 3 punto.

Modu honetan osatua gelditu zen Bartzelonako Olinpiadetara agertuko den Nafarroako selekzioa. Bertan parte hartuko duten sokatiralari guziak ekainaren 21ean egin zuten lehen entrenamendua Amaiurren.

# Frantziako txirrindulari Tourra eskualdean barrena igaroko da Uztailaren 6an

*Lesakatik sartu eta Baztanetik aterako da Pau aldera*

Donostiatik ateri eta Pau hirian bukatuko den Frantziako Tourraren bigarren etapa eskualdean barrena igaroko da uztailaren 6an. Aritxulegi eta Agiña pasatu ondoren, Lesaka, karretera generala eta Baztan igaro ondoren, Baigorri alderako errepidea hartuko du, handik Paura hurbiltzeko. Aipagarria da, Agiña eta Aritxulegi 3. kategoriko menditzat hartu dituztela.



ARTXIBOA

Nazioarte mailako txirrindulariak ikusteko aukera izanen da

FUTBITOA

# Iruritako Atlantic Xixas taldea irabazle izan zen Bortzirietako Futbito txapelketan



Atlantic Xixas AITOR



Los Taurinos AITOR

Gehien bat Iruritako jokalariz osatutako Atlantic Xixas taldea izan da Beti Gazte elkarteak antolatzen duen Bortzirietako Futbito txapelketaren irabazlea, finalean Lesakako Los Taurinos taldeari 8 eta 0 irabazi ondoren.

Baztandarrak ez zuten lan haundirik egin behar izan txapelketa eskuratzeko, nagusitasun haundia erakutsi bait zuten, finalean behinipein eta jokaldi ikusgarriak ere ikusi izan ziren. Hirugarren eta laugarren postuak, lesakarrentzat izan ziren, Sporting Spartzin eta Goldia taldeentzat, hain zuzen.

Senior mailan 25 talde aritu dira Bortzirietako futbito txapelketa honetan eta kiroltasuna izan da nagusi. Ttikien eta emakumeen mailetan ere zenbait talde aritu dira.



# Goizueta Herriarteko pilota txapeldun seigarren aldiz

***Lizarrari irabazi zion Labriteko finalean***

Goizuetako taldeak seigarren garaipena lortu zuen Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan, ekainaren 20ean Iruñeko Labrit pilotalekuan Lizarraren aurka jokatutako finalean 3 partidu irabazi ondoren. Alebinetan, Zubiri eta Ezeizak ezin izan zuten irabazi, nahiz ahaleginak egin. Infantil eta jubeniletan ordea, Olaizola-Goizuetak eta Olaizola-Berroetak irabazteaz gain tanteo polita lortu zuten. Haundietan, Lujanbio eta Apezetxeak 14 tanto ateratzearekin nahikoa zuten. 17-12 galtzen ibili ondoren, azkenean irabaztea eta txapela (3 urtez jarraian) Goizuetara eramatea lortu zuten.

# Hamabostaldiko jokaldiak



**Goizuetako** pilota taldea. Herri honetan pilota zerbait berezia dela ez dago dudarik. Azken hiru urtetan Herriarteko txapela bertara eraman dute eta guzira seigarren aldia da garaipena lortzen dutela, errekorra ere eskuratuz.



**Karreterak** «famosoak» pasatzerakoan bakarrik moldatzea. Tourra eskualdetik igarotzen dela eta zenbait karretera moldatzen hasi dira. Urtean zehar bertatik pasatzen garenak ez gara telebistan ateratzen.

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Apartamentu** bat alokatzen da 'La Manga del Mar Menor'en (Murcia). 3 logela. Abuztua eta irailan. ☎ (968) 267875.

• **Beran** egiten ari garen pisu berria salgai dago. ☎ 630332.

• **Beran** bajera alokatzen da. 4 metrotako altura. ☎ 630332.

• **Elizondon**, Santiago karrikan pisua salgai. 3 logela, jangela, sukaldea, kalefakzioa eta ganbarakin. ☎ 453213 (Mª Jesus). Arratsetan deitu.

## Lana

• **17 urteko** neska batek haurrak zainduko lituzke Beran. 630516 (Maitane).

• **Neska** bat edozein lan egiteko prest dago. ☎ 631224 (Pati).

• **Neska** bat interna bezala lan egiteko behar da. ☎ 627542 (Nekane). Goizeko 10etatik 1etara.

• **Ingeniari** Teknikoa planoak eta proiektuak egiteko eskeintzen da. ☎ 580420 (deitu arratsetan).

• **Dentista** laguntzaile eta aho-higienista praktikak egiteko eskeintzen da: ☎ 943-391557 (Belen).

## Salerosketak

• **Lur eremu** edifikablea salgai Beran. Deitu 630664 tfnora lan ordutan.

• **Suzuki Lido** motoa, 49 cc.koa salgai. Tfnoa: 630343.

• **Behi** ernaria, nabarra, 2 urtetakoa salgai. Tfnoa: 450980 (Labaien).

• **Kawasaki** KX 80, 91kakoa salgai. Egoera onean dago. Tfnoa: 635220 (Joseba) Arratsetan.

• **Bizikleta** haurrendako salgai. Iturengo Aurtitzen, Aldategia etxea bigarren pisuan.

• **Narbarten**, belar elebadora elektrikoa, tubo eta guzi salgai. ☎ 592134 (eguerditan).

• **Honda 600** Trail-motoa salgai. ☎ 637852 (Javier).

• **Behia** izteko makina salgai, modu onean. Deitu 634133 ☎.

• **Neska** batendako bizikleta egoera onean salgai. Arroxa da eta saskia ere badu. ☎ 634130(Arantza).

• **Kawasaki** 250 KX motoa, 88koa salgai. ☎ (943) 625848 (eguerdi eta gauetan deitu).

## Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10-1etara eta 5etatik 8etara 637410ra .

• **Zugarramurdin** "Akelarre" Jatetxea alokatzen da. Deitu 599094 ☎.

• **Artzai zakur** (eskozes-euskaldun arraza nahastua) urte betekoa, etxe zakurrerako ematen da. Ikustera ere joan daiteke. Tfnoa: 514101 (Goizueta).

• **Iruñako** Salesianoetara egindako katekesi irteeran, motxila urdin bat jaso zen. 615048ra deitu.

• **Ingleseko** klase partikularrak emango nituzke, maila guztietan. ☎ 631136 (Elene).

• **Beratik** Mendaurerako bidean urrezko pultsera galdu da. Pili izena eta jaiotza eguna jartzen du. Norbaitek arrautu badu deitu faborez 630623 ☎.

• **EGBko** haurrei klaseak emango nizkieke Leitzan. ☎510177(Lorea).

• **Lesakan** toki onean denda traspasatzen da. Deitu 637401 ☎.

## Harremanak

• **Lesakako** Pedro Mª Larralderi zorionak urtebetetzean, ekainak 29. Egun ona pasa eta muxu haundi bat L.D.ren partez.

• **Donamariako** Andreari: Zorionak zure urtebetetzean (ekainak 15) eta orain bezain lagun ona izaten segi dezazun. S.A.I.

• **Aresoko** Mª Jesus Intxaurrondori, bere urtebetetze egunean, zorionak. Lehengo urtean bezala ospatu behar dugu, kafe bat hartuz. Juana Mari.

• **Elizondoko** Miren Laurnagari zorionak ekainaren 25ean partez. Mugaireko Etxandiren partez.

• **Zubietako** Peiori zorionak. txanpaina freskatzen jarri ezak San Ferminetako ahaztu gabe (marka onekoa). Goizuetako fansen partetik.

---

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: ..............................

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

---

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK ..............................

HELBIDEA ..............................

HERRIA .................... Tfnoa: ....................

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



Guretzat hain bereziak San Ferminetan,
herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

**Besta Zoriontsuak!**

denontzat eta denokin

CAN

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA



Lesakako Udalak besta onak opa dizkizue
Lesakar guziei